



ETXARRI - ARANATZ

ETXARRI2012



EDIKTOA

JOSE IGNACIO BAKAIKOA ARISTORENA
ETXARRI ARANAZKO ALKATEAK

ADIERAZTEN DU

2012KO HAUTETSIEN ORDAINSARIAK

Etxarri Aranazko Udalak, 2012ko martxoaren 20an egindako batzarran, ondoko akordioa hartu zuen:

Ikusirik 23/2003 Foru Legea, apirilaren 4koa, karguan aritzeagatik euren kideei ordainsariak ordaintzen dizkieten Nafarroako Udalei konpentsazio ekonomikoak emateko sistema bat ezartzen duena, eta aztertutik Udalbatza honetako kideei ordainsariak, laguntzak eta kalte-ordainak zehazteko hasitako prozedura, Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legearen 75. artikuluan eta Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduaren 13. artikuluan agindutakoan oinarriturik, Udalaren ezaugarri bereziei erreparatu ondotik, 2011ko abuztuaren 30ean egindako osoko bilkuran, aho batez erabaki da:

Lehena.-Alkateak dedikazio osoa izatea onestea.

Bigarrena.-Alkateak lanaldi osoa izanen du, hau da, 35,40 ordu astean. Zenbateko hau jasoko du: 29.374,24 euroko soldata gordina urtean, hamabi hilabetetan banatua eta aparteko bi paga, 2.098,16 euro gordinetara bakoitza. Zenbateko horiei legeak agindutako atxikipenak aplikatuko zaizkie, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Gizarte Segurantzako langile kuota kontuan izanik: Udalak bere gain hartuko du enpresa kuota ordaintzea.

Alkatearen ordainsariak urtero eguneratuko dira KPIren igoeraren arabera, organo eskudunak bestelako igoerarik ezartzen ez badu.

Hirugarrena.-Gizarte Segurantzaren Diruzaintzako Lurralde Bulegoan eskatzea Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean sartzeko edo alta emateko, legeriak agindutako moduan.

Lugarrena.-Alkatearen liberatzeari buruzko erabaki honek 2012ko urtarrilaren 1etik aitzina hartuko du indarra.

Bosgarrena.-Gainerako udalkideek zenbateko hauek jasoko dituzte organo kolegiatueta joateagatik, dedikaziorik ez baldin badute.

-Organo kolegiatueta agertzea: 95 euro (laurogeita hamabost euro) organo kolegiatueta bakoitzera agertzeagatik, urtean 1.459,36euro, gehienez ere.

Zenbateko horiei legeak agindutako atxikipenak aplikatuko zaizkie, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga dela eta.

Hurrengo urteetan, zenbateko hauek eguneratuko dira, Toki Administrazioiko zuzendari nagusiak onesten duen urteroko ebazpenean xedatzen denaren arabera.

Seigarrena.-Udalbatzako kideek kalte ordainak jasotzeko eskubidea dute karguan ari direla izandako gastuen ordain, betiere gastu horiek behar bezala baimendu badira eta agirien bidez justifikatzen badira: baldintzak eta zenbatekoak, berriz, Nafarroako Administrazio Publikoeta langileentzat urtero ordainsarien alorrean ezartzen direnak izanen dira.

Zazpigarrena.-Zinegotzien ordainsariei buruzko erabaki honek 2012ko urtarrilaren 1etik aitzina hartuko du indarra.

Zortzigarrena.-Erabaki honen berri ematea Udalaren Kontu-hartzaitzari eta Toki Administrazioiko Departamentuari.

Bederatzigarrena.-Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki oholean argitaratzea.

Etxarri Aranatzen, 2012ko apirilaren 11an.
Alkatetza: Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena

